



## San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1  
20003 Donostia-San Sebastián  
T (00 34) 943 48 15 80  
F (00 34) 943 48 15 81  
santelmo@donostia.org

# SAN TELMO MUSEOA GUNEAK ERABILTZEKO ARAUAK

## SARRERA

San Telmo Museoa Donostiako hirigune historikoan kokatuta dago, ingurune paregabe batean. XVI. mendeko eraikina da, eta Domingotarren komentua izan zen garai batean. Berriki, arkitektura-zabalkuntza bat izan du. Tamaina desberdineko eta antzinako estetikako zein estetika modernoko hainbat gune ditu, eta guneak, baliabideak eta instalazioak erabiltzeko aukera ugari eskaintzen ditu jarduerak eta ekitaldiak egin nahi direnean: hitzaldiak eta aurkezpenak, enpresa-bilerak, koktelak, gala-afariak, kontzertuak, sari-banaketak eta abar.

### 1. ERABILERA ARAUAK

Ekitaldi eta jarduera propioetarako izango dira lehentasunez museoaren guneak, museoak eskusiboki garatutakoak, edo museoak beste erakunde batzuekin elkarlanean parte hartzen duenentarako.

Gainera, beste erabilera batzuetarako ere alokatu ahaliko dira museoaren guneak, betiere museoaren zuzendaritzak aukera horri egoki irizten badio eta establezimenduaren segurtasuna eta behar bezalako funtzionamendua bermatzen bada.

Guneak alokatzeko baldintzak eta ezarritako prezioak une bakoitzean indarrean daudenak izango dira.

### 2. ALOKATZEKO BALDINTZAK

- Alokairu orok inprimaki espezifikoa igorritako dagokion eskaera, museoaren zuzendaritzaren esanbidezko baimena eta kontratuaren ondorengo formalizazioa eskatuko du.
- Une bakoitzean ezarritako prezioen tarifak aplikatuko dira.
- Kide Korporatiboen Programari atxikitako erakundeek gune horiek erabiltzeko hainbat abantaila balia ditzakete.

### 3. GUNEAK ERABILTZEKO ORDUTEGIAK

Guneak erabiltzeko ordutegia museoaren funtzionamendu-ordutegiaren arabera izango da; horregatik, klaustroa, eliza eta patioa museoaren jendearentzat itxita dagoenean erabiliko dira, zuzendaritzak espreski kontrakoa esan ezean; ekitaldi-aretoa eta beste gune batzuk, ordea, jarduera-programazioarekin bat etorri erabiliko dira.

#### Museoa irekitzeko ordutegia:

Asteartetik igandera: 10:00etatik 20:00etara

Astelehenetan itxita eta jaiegunetan zabalik.

Museoa itxita egongo da egun hauetan: urtarrilaren 1ean eta 20an, eta abenduaren 25ean.

Aldi baterako erakusketak, museoaren jarduerak edo ekitaldiak direla-eta, ezohiko moduan irekiko balitz, iragarri egingo da.

## San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1  
20003 Donostia-San Sebastián  
T (00 34) 943 48 15 80  
F (00 34) 943 48 15 81  
santelmo@donostia.org

### 4. GUNEEN DESKRIBAPENA

San Telmo Museoa hainbat gune eskaintzen ditu jarduerak eta ekitaldiak egiteko:

Gunea	Azalera m <sup>2</sup>	Aforoak	Gutxieneko alt. m.
<b>BEHEKO SOLAIRUA</b>			
Ataria Museoko harrera-lekua, museoko erakusketaguneen eta kulturaguneen elkargunea da. Zuloaga plazarako fatxada beiraztatuarekin.	130	75	3,45
Ekitaldi-aretoa Museoaren sarreran kokatutako gune goxoa dugu, bertara sartzeko erraza, eta bideoko eta audioko sistema aurreratuenek hornitua, aldibereko itzulpeneko kabina batez gain.	157	140	3,45
Eliza Sert-en mihiseak eta absidean aurkitutako XVI. mendeko margolanak dira nagusi jatorrizko izaera eta handitasun osoari eusten dion San Telmo elizan.	800	600	6,90
Klaustroa XVI. mendeko espazio monumentala, kanpo-lorategia duena.	533	500	5,80
Beheko solairuko patioa Antzinatearen eta modernitatearen topagunea, sarrerako atariaren ondoan kokatutako patio horrek aire zabaleko leku babestua eskaintzen digu.	340	250	aire zabalean
San Telmo Kafetegia	127	80	
<b>1. SOLAIRUA</b>			
Laborategia Zabalduetako eraikineko bigarren solairuan kokatutako areto modernoa; erdiko gune bat dauka, argi-patio batek osatutakoa eta landare-fatxada batez inguratutakoa.	230	50	3,45

IFK-CIF A20966422  
10279n I 2010-06

# STM

## San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1  
20003 Donostia-San Sebastián  
T (00 34) 943 48 15 80  
F (00 34) 943 48 15 81  
santelmo@donostia.org

Hezkuntza Tailerra	146	50	3,45
Zabaldutako eraikineko bigarren solairuan kokatutako areto modernoa, erdiko gune bat dauka, argi-patio batek osatutakoa eta landare-fatxada batez inguratutakoa.			
Laborategiko patioa	85	50	aire zabalean
Pertsona gutxiko ekitaldiak egiteko argi-patio egokia. Bi areto argi eta modernoren artean kokatuta dago.			
Terraza	217		aire zabalean
Ekitaldi intimistetarako toki horrek Urgull mendiko paisaia naturalerako bistak ditu.			

IFK-CIF A20965422  
10279n I 2010-06

Gainera, beste zenbait gune ere baditu museoak, salbuespenezko kasuetan erabili ahalko direnak, betiere zentroaren programazioak, guneen erabilgarritasunak eta ekitaldiaren interesak ahalbidetzen badu.

Gunea	Azalera m <sup>2</sup>	Gutxieneko alt. m.
<b>BEHEKO SOLAIRUA</b>		
Aldi baterako erakusketa-aretoa	510	6,35
Kapitulu Gela	192	8,15
Sakristia Berria	129	9,70
Etxeberritarren Kapera	125	12,30
<b>SOLAIRUARTEA</b>		
Liburutegia	234	

# STM

## San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1  
20003 Donostia-San Sebastián  
T (00 34) 943 48 15 80  
F (00 34) 943 48 15 81  
santelmo@donostia.org

### 5. NAHITAEZKO ZERBITZUAK GUNEAK ALOKATZERAKOAN

- Elizan banketeak, aperitiboak edo koktelak egitekotan, nahitaezkoa izango da zoruan linolia ipintzea (finkatutako prezioa 844,90€ BEZa ez barne).
- Aretoko eta zaintzako langileen gutxieneko kopuru bat beharko da. Kopuru hori ekitaldiaren neurriaren arabera izango da.
- Ekitaldiaren arabera, gutxieneko garbitzaile kopuru bat beharko da.

### 6. GUNEEN ALOKAIRUAN SARTUTA DAUDEN ZERBITZUAK ETA HAUTAZKOAK

#### Aretoen alokairuan honako hau sartzen da:

- Argiztapen orokorra, klimatizazioa eta ohiko garbiketa.
- Oinarrizko zaintza etengabea eraikinean.

#### Aretoetako hautazko zerbitzuak:

- **Jatetxe- eta catering-zerbitzuak:**  
Soilik Grupo Bokado Taldearen ardurapean, goi-mailako catering- eta jatetxe-enpresa. Harremanetan jartzeko: Irati Ayestaran e-maila: comercial@bokadogrupa.com Tel.: 626596268
- **Ekitaldietan lagunduko duten pertsonak:**  
Prezioa pertsona eta ordu bakoitzeko (gutxieneko kontratazioa: 3 ordu): ikus "Prezioak San Telmo Museoa".
- **Ikus-entzunezko zerbitzuetarako laguntza teknikoko langileak:**  
Prezioa pertsona eta ordu bakoitzeko (gutxieneko kontratazioa: 3 ordu): ikus "Prezioak San Telmo Museoa".
- **Aldibereko itzulpena.**
- **Kultura-programazioko zerbitzua.**
- **Audiogiden alokairua.**
- **Erakusketetarako bisitaldi pribatua:** Museoak bisita pribatu pertsonalizatuak eskaintzen ditu 20 pertsonatako gehieneko taldeetan, bakoitza gida batekin: ikus "Prezioak San Telmo Museoa".

# STM

## San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1  
20003 Donostia-San Sebastián  
T (00 34) 943 48 15 80  
F (00 34) 943 48 15 81  
santelmo@donostia.org

### Segurtasun- eta zaintza-zerbitzuak.

- **Garbitzaileak:**  
Prezioa pertsona eta ordu bakoitzeko (gutxieneko kontratazioa: 3 ordu).  
Banakako aurrekontuaren arabera.

## 7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZA OROKORRAK

### Ordaintzeko era:

Deposito eta dataren erreserba egiteko ekitaldiaren konfirmazioarekin batera %25 ordainduko da (BEZ gabe) eta %75 (BEZ gabe) ospakizunaren astean zehar ordainduko da, Kutxako kontu korrente honetan: 2095 0611 00 1063470859.

A priori zenbatu ezin diren zerbitzuen fakturek eragindako ordaindu gabeko kitapenak ekitaldia egin eta hurrengo astean ordainduko dira.

### Zerbitzuak ezeztatzea:

Aipatutako ekitaldia ospatzeari uko egiten badio errentariak "isilbidez edo esanbidez", aurreratutako dirua galdu egingo du, salbu eta gunea erabili baino sei hilabete lehenago jakinarazten badu.

### Irudia erabiltzea:

Idazki bidezko baimena baldin badago izan ezik, kontratatzaileak ezin izango du SAN TELMO MUSEOAREN izena edo marka erabili ezein publizitatetan, objektutan edo inprimatutako materialetan.

### Zerbitzuen eskusibotasuna:

SAN TELMO MUSEOAK esleitutako zerbitzu guztien eskusibotasun-printzipioari eutsiko zaio museo barruan, bereziki, jatetxe-, garbiketa- eta segurtasun-zerbitzuena, baita jendeari arreta emateko zerbitzuarena ere.

### Proposamena aurkeztea:

Errentariak SAN TELMO MUSEOARI behar den informazioa eman beharko dio jarduerak gauzatuko dituen moduari buruz ekitaldia egin baino hilabete eta erdi lehenago gutxienez.

Aurrekontuaren xede d(ir)en aretoa(k) edo gunea(k) dekoratzeko muntaketaren bat egin behar bada, errentariak proiektu labur bat aurkeztu beharko du, behar adina xehetasun ematen dituen proposatutako instalazioen irismena balioesteko. Museoaren zuzendaritzak proiektua aztertzen duenean, beharrezkotzat hartzen dituen aldaketak proposatu ahal izango ditu, une oro, edo proiektu horretarako baimena ez emateko ahalbidea izango du, baldin eta proiektuan azaltzen diren instalazioek museoako obrak eta/edo museoaren segurtasuna arriskuan jartzen badituzte. Nolanahi ere, dekoraziorako muntaketak ezin izango die museoeko instalazioei eragin.



## San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1  
20003 Donostia-San Sebastián  
T (00 34) 943 48 15 80  
F (00 34) 943 48 15 81  
santelmo@donostia.org

Elizaren gunea erabili behar bada, muntaketa egin aurretik suaren aurkako babesaren duen moketa bat jarri beharko da esparruaren gainean, bestela, ez da baimenik emango muntaketa hori egiteko.

### 8. KOMUNIKAZIOA ETA MUSEOAREN IRUDIAREN TRATAERA ALOKAIJETA

Komunikazioa eta Museoaren irudiaren trataera alokairuetan 2012ko irailaren 1etik aurrera ondorengo terminoetan izango da:

- Museoak dagokion euskarrietan iragar dezake San Telmo Museoan burutuko den jarduera.
- Museoak bere irudi korporatiboaren gaineko erabilera kontrolatuko du. San Telmo Museoko fatxada publizitaterako erabili behar baldin bada, erabilera horren prezioa egokiera bakoitzean kalkulatu da: sarreran, klaustroan edo elizan, patioetan, publizitate dinamiko nahiz estatikoan, eta abarretan...; gauza bera argazki edo filmazio kasuetan ere.
- Museoko edozein gelaren alokairuan ez da Museoaren irudiaren erabilpena sartzen.
- Argazkiak eta grabaketak egiteko eta hauen zabalpenak, idatziz eskatu beharko da baimena.
- Argazki erreportajeetan eta filmaketetan San Telmo Museoaren irudiaren erabilpen komertziala edo kolektiboa egiteko Museoan galde egin beharko da.

IFK-CIF A20966422  
10279n I 2010-06